

@@@EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 2koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Fundación Unicef-Comité País Vasco erakundeari ekintza humanitario baterako diru-laguntza ematen diona, Garapenerako Lankidetzarako eta Laguntzarako 2011rako Fondoaren kargura.@@@

Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuak ekintza humanitarioetarako laguntzak arautzen ditu, garapenerako lankidetzaren kargurakoak, eta bi jarduera-mota bereizten. Alde batetik, larrialdietan laguntzeko proiektuak daude, zeinen bidez, biziraupena bermatzeko eta hondamendiek eragindako sufrimendua eramangarriago egiteko, oinarritzko ondasunak eta zerbitzuak eskuragarri jarri nahi baitira, urgentziaz. Bestetik, ekintza humanitarioetarako proiektuak daude, zentzu zabalagoan; horri lotutako jarduerak larritasun-maila txikiagokoak dira, eta garapena, giza eskubideak eta bakegintzaren oinarriak sustatzeko dira.

Aipatutako dekretuaren 4. artikulua dioenez, urtero egingo da laguntza-deialdia, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren aginduaren bidez. Hala ere, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta abiarazi ondoren, ikusirik Jaurlaritzaren Lehendakariari esleitu zaiola garapenerako lankidetzaren arloa, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia izeneko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa ere atxiki zaiola, Lehendakariatzako idazkari nagusiak egin behar du diru-laguntzen deialdi hau. Aipatutako eskumena erabiliz eman zen 2011ko martxoaren 9ko Ebazpena, zeinen bidez deialdia egiten baita ekintza humanitarioak diruz laguntzeko; laguntzok, garapenerako lankidetzarako eta laguntzarako 2011ko fondoaren kargura emango dira.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak erabakiko du nola kudeatu aipatutako laguntzak eta arlo honetan eman beharko diren ebazpenak.

Ondorioz, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legeko 11.2 artikulua araberak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikuluaekin bat etorritik, eta 2011ko uztailaren 29an bildu zen Kontseilu Errektorearen proposamenez, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.- Larrialdi-laguntzetarako eta ekintza humanitarioak sustatzeko laguntza-eskaera bati diru-laguntza ematea finantzaketa-lerro iraunkorrean, hain zuzen ere, Fundación Unicef-Comité País Vasco erakundeak eskatutako «Emergencia en el cuerno de África, hambruna en Somalia» proiektua finantzatzeko.

Bigarrena.- 197.310,64 euroko ordainketa bakarraren bidez ematea laguntza. Proiektua 2010eko urtarrilaren 22an hasi eta 2010eko martxoaren 31n amaituko da. Beraz, diru-laguntza zuzentzeko epea 2010eko uztailaren 31n amaituko da.

Hirugarrena.- Ebazpen hau erakunde eskatzaileari jakinaraztea, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Laugarrena.- Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean. Gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsioa ezetsitzat jo daiteke, eta administrazioarekiko auzien bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 2a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.